

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

23/2019 Foru Agindua, otsailaren 6koa, baimena ematen duena Zuriñe Perello Ladislao andrearen, José Ignacio Elorriaga Zorrozauren eta María Antonia Pérez Azcárraga andrearen behin-behineko izendapena egiteko, hurrenkera horretan, Amurrioko Udaleko idazkari lanpostua betetzeko, haren titularrak aurten izan ditzakeen ezintasun edo absentzia kasuetan, oporregatik, haren gauzengatik edo beste arrazoi batzuegatik, hilabete baino gutxiagoko aldiatarako

Indarreko ordenamendu juridikoak behin-behineko izendapenak ahalbidetzen ditu, egin beharreko ordezkapenak egiteko idazkaritza nagusiaren lanpostuan, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak, gaikuntza nazionala duten toki administrazio funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duenak, 52. artikuluan xedatutako kasuetan.

128/2018 Errege Dekretuaren 52.4 artikuluan adierazten denez, lanpostuaren titularraren ezintasun edo absentzia kasuetan, oporregatik, haren gauzengatik edo beste arrazoi batzuegatik, hilabete baino gutxiagoko aldiatarako, toki erakundeko bertako funtzionario baten behin-behineko izendapena egin ahalko da, korporazioko lehendakariak proposatuta, autonomia erki-degoko araudiaren arabera.

Horregatik, Amurrioko Udalak proposatzen du A1 taldeko karrerako funtzionario Zuriñe Perello Ladislao andrearen, José Ignacio Elorriaga Zorroza jaunaren eta María Antonia Pérez Azcárraga andrearen behin-behineko izendapena egitea, hurrenkera horretan, Inés María Valdivielso Martínez Amurrioko Udaleko idazkariak 2019an izan ditzakeen absentiak ordeztzeko, hilabete baino gutxiagoko aldiatarako.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazio funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Kontuan hartu da Toki administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko Legeak (27/2013 Legea, abenduaren 27koa) 25. artikuluan xedatutakoa —Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legea (7/1985 Legea, apirilaren 2koa) aldatzen du 27/2013 lege horrek, 92.bis artikulua berria sartuta—, non finkatzen den toki korporazioetan aldi baterako halabeharrezko langileak izendatzeko aginpidetza eremua.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskuduntzen ondorioz (52/1992 Foru Araua, Arabako Foru aldundiaren antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzkoa), eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Zuriñe Perello Ladislao andrearen, José Ignacio Elorriaga Zorroza jaunaren eta María Antonia Pérez Azcárraga andrearen behin-behineko izendapena egitea, hurrenkera horretan, aurten Amurrioko Udaleko idazkari lanpostua betetzeko haren titularraren ezintasun edo absentzia kasuetan, oporregatik, haren gauzengatik edo beste arrazoi batzuegatik, hilabete baino gutxiagoko aldiatarako.

Bigarrena. Izendapenak aurreko paragrafoan jasoriko eta 2019ko ekitaldian gertaturiko kasuetarako baino ez du indarra izango, 128/2018 Errege Dekretuaren 52. artikuluan 4. paragrafoak aipatzen duen araudi autonomikoa onetsi arte.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesdunei, Amurrioko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, bai eta berau ALHAOn argitaratzeko agintzea ere.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 6a

Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua

MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Orekaren zuzendaria

IÑAKI GUILLERNA SAENZ